

ATAUNEN HAURREN ETA GAZTEEN SUSTAPEN SISTEMA GARATZEKO PROPOSAMENA

ATAUN

2010eko OTSAILA

BULEGO TEKNIKOA

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO HAUR, NERABE ETA
GAZTEEN SUSTAPENERAKO ATALA**



ATAUNEN HAUREN ETA GAZTEEN SUSTAPEN SISTEMA GARATZEKO PLANTEAMENDUA

0. SARRERA

- 0.1. Aurrekariak
- 0.2. Metodologia

1. HERRIAREN DESKRIBAPENA ETA KOKAPENA

- 1.1. Herriaren kokapena eta ingurua
- 1.2. Datu soziodemografikoak
- 1.3. Herriko zerbitzu eta ekipamenduak

2. ATAUNGO HAUR, NERABE ETA GAZTE POPULAZIOAREN EGOERA

- 2.1. Haur, nerabe eta gazteengan eragiten duten joera ekonomiko, kultural eta sozialak.
- 2.2. Haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak
- 2.3. Ataungo haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak
- 2.4. Ataungo elkartegintza

3. ATAUNGO GAZTERIA POLITIKAK: OINARRIAK, GARAPENA ETA EGUNGO EGOERA

- 3.1. Udal egitura eta Sustapen zerbitzua
 - 3.1.1. Sustapen zerbitzua
- 3.2. Ataungo Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera
 - 3.2.1. Gazteria kontzeptu eta politiken garapen historikoa
 - 3.2.2. Ataungo Gazteria Politiken egungo egoera
 - 3.2.2.1. Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapen Sistema
 - 3.2.2.2. Ataungo Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera

4. LAN PROPOSAMENA

- 4.1. Ikuspegia
- 4.2. Egitekoa
- 4.3. Helburu orokorrak eta zehatzak
- 4.4. 2010 kudeaketa plana



ATAUNEN HAURREN ETA GAZTEEN SUSTAPEN SISTEMA GARATZEKO PLANTEAMENDUA

0. SARRERA

0.1. Aurrekariak

Ataungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean GFA) arteko elkarlanaren hasiera 2009 urtean kokatzen da. Udalak Ataungo herrian sustapen sistema garatu ahal izateko laguntza eskaera egin zion GFARI. Ondoren, 2009ko apirilaren amaieran bilera bat burutu zen, non, GFAREN Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Atalburuak aholkularitza zerbitzua zer zen azaldu zuen, erakunde bien artean epe ertain-luzera begirako elkarlana abian jartzeko aukerarekin batera. Ataungo Udalak eskaintza hau baloratu, eta beharrezko tramiteak egin ondoren elkarlana abian jarri zen, Udalaren, GFA eta Bulego Teknikoaren ordezkarien arteko lehen bilera baten bidez 2009ko urriaren 1ean.

0.2. Metodologia

Aurrediagnostikoa egin ahal izateko, lehen mailako iturrietatik jaso dugu informazioa, eta sarean aurkitutako hainbat informazio ere bildu dugu. Ataungo Haur eta Gazteen Sustapen Sistemaren arduradun politikoa (aurrerantzean arduradun politikoa), Udaleko beste zinegotziekin batera, funtsezkoa izan da informatzaile potentzialak eta beharrezko dokumentazioa identifikatzeko unean. Informatzaileekiko lehen hartu-emanak Udalak egin ditu, hau, identifikatutako informatzaileei zuzendutako gutun baten bidez eta herrian zabalduetako bando baten bidez egin da. Datak zehazteko eta elkarrizketak egiteko arduraduna Bulego Teknikoan ari den pertsona izan da. Landa-lanak hiru hilabete eta erdi iraun ditu (2009ko azaroan hasi 2010eko otsaila hasiera arte).

Guztira 9 elkarrizketa eta 4 eztabaida-talde egin dira. Elkarrizketatuak honakoak izan dira: Udaleko zinegotzi eta teknikariak, Udaletik kanpo dagoen erreferente politiko bat, gazte elkarte bateko ordezkari bat, San Martin eta San Gregorio auzotako gurasoak, eskolako zuzendaritza taldeko ordezkariak, nerabe koadrilak eta zabalduetako bandoaren bidez eskaera egin duen herritar bat.

Aia auzoko gurasoekin eta San Gregorioko gazteekin elkarrizketa egiteko saiakerak egin dira baina komunikazio zailtasunak tartean azkenean ez dira egin.


Herriko haur, nerabe eta gazteen inguruko dokumentaziorik ez egotean, bigarren mailako informazio iturri nagusiak web guneak izan dira (udal web orria, Goieki, Eustat,...)

1. HERRIAREN DESKRIBAPENA ETA KOKAPENA

1.1. Herriaren kokapena eta ingurua

Ataun, Gipuzkoako hegoaldean dago kokatua, Goierri bailaran. Nafarroarekin muga egiten du eta Aralar Parke Naturalaren barruan dago. Bailarako industrigunetik hurbil baina herri txikia izanik oraindik artzaintza, nekazaritza eta natura munduan erabat txertatuta dago. 58,9 km²ko zabalera du eta itsas mailatik 196 m-ra dago.

Gipuzkoako herri luzeena da (14 Km) eta oso zabalduta dago auzo ugarietan nahiz eta biztanleria nagusiki San Martin, San Gregorio eta Aia auzogunetan bildu. Auzoetaz aparte baserri ugari eta sakabanatuak daude herrian.



Bertaratzeko dauden aukera desberdinen artean azpimarratu: Autobus zerbitzuak, Goierrialdea S.L., La Estellesa S.L. eta Transportes Pesa S.A. dira. Autoz, GI-120 bidea hartuz (Beasain-Etxarri Arantz). Trenez, Beasaingo eta Ordiziako tren geltokiak herritik 5 km-ra daude eta Goierrialdea autobus zerbitzuarekin lotuak.

Auzoen arteko distantzia handia da eta honek zerbitzuak, ekitaldiak edota baliabideen kudeaketan zailtasunak suposatzen ditu, adibidez, zerbitzuak martxan jartzeko hauek non kokatu eta zein irizpide erabili hau erabakitzeko



garaian, edota herriko jaiak hirukoiztu beharra, eskola edota herriko ospakizunetarako errotazio sistema bat antolatu beharra. Honek gatazkak eta zenbait proiektu oso mantso garatzea edota bertan behera geratzea suposa dezake.

Distantzia honek ere auzo izaera eta identitateak oso markatuak egotea ekarri du. Egoera honek, auzoen arteko harremanak baldintzatzen ditu eta normalean zerbait zehatzera ez bada jendea bere auzoan geratzeko joera dauka.

Mugikortasuna ere mugatua da, kotxea erabiltzeko ohitura handia da.

1.2. Datu soziodemografikoak

Ataunek egun 1.671 biztanle ditu. Biztanle hauetatik 453 dira haur, nerabe eta gazteak, hau da, biztanleri osoarekiko % 27,11. Gipuzkoako datuekin alderatuz, haur, nerabe eta gazteen portzentaia biztanleriarekiko %29koa da, eta beraz, Ataunen haur, nerabe eta gazte populazioa lurraldeko batazbestekoa baino baxuagoa da. Adin tarteka banatuta hauexek dira Ataungo haur, nerabe eta gazteen datuak:

Adin tartea	Neskek	Mutilak	Denera
0-5 urte	75	83	158
6-12 urte	31	57	88
13-18 urte	26	29	55
19-25 urte	40	43	83
26-29 urte	29	40	69
Denera	201	252	453

**Datuak Ataungo Udaletik jasoak, 2009*

Taulan ikus daiteken moduan, neska eta mutilen datuak nahiko proportzionalak dira, hau da, herrian sexuaren araberako portzentaiak antzekoak dira.

Adin tarteei begira, azpimarratzekoa da haurren kopuruak nabarmen egin duela gora azkeneko urteetan, gaur egun, 0-29 adin tartean dauden biztanleen erdia baino gehiago haurrak dira.

2004	1.514
2005	1.531
2006	1.575
2007	1.599
2008	1.654
2009	1.671

Iturria: Ataungo Udaleko web orria

Populazioaren datu orokorretara bueltatuz eta goiko taulari erreparatuz, aipatzekoa da biztanlerian gorakada eman dela, haur kopurua honen adierazgarri da. Azkeneko bost urtetan herriko biztanleriak izandako igoera portzentuala %9,4koa izan da. Honen arrazoi nagusia, egin diren etxebizitza



berriak dira, horren eraginez herriko jendea bertan geratzeko aukera izan du. Beste arrazoietako bat, inguruko herrietan baino merkeagoa da etxebizitzaren prezioa eta horregatik inguruko herrietako jendea bertaratu da eta atzerrikik etorritako pertsonen kopuruan emandako igoerak ere eragina izan du.

Biztanleriaren banaketari dagokionez, hiru dira herriko auzo nagusiak: San Martin, San Gregorio eta Aia. Hauetatik San Martin da herriko biztanleen gehiengoa hartzen duena, gero San Gregorio eta azkenik Aia. Haur, nerabe eta gazteei begira ere San Martin da biztanle gehien dituen auzoa.

Eskolatzeko maila

GAZTEEN ESKOLATZE MAILA:	Udal errolda 2008/12/31	Gipuzkoa 2008/12/31
· Analfabetoak:	0,0	0,0
· Ikasketarik gabeak:	2,2	0,8
· Lehen hezkuntza:	73,6	52,0
· Lanbide heziketa:	4,7	6,6
· Bigarren hezkuntza:	8,2	14,7
· Erdi-mailako ikasketak:	1,9	3,9
· Goi-mailako ikasketak:	1,3	1,3

Ataungo haur, nerabe eta gazteen eskolatzeko maila Gipuzkoako datuekin alderatuz, Ataunen lehen hezkuntzan dauden kopurua lurraldekoa baina ia 20 puntu altuagoa dela azpimarratu behar da. Honek herrian dagoen haur kopuru altuarekin lotura zuzena dauka. Bestalde, ondorengo ikasketetan ikusten diren batezbestekoak lurraldekoa baino baxuagoak dira, goi mailako ikasketei dagokienez ezik, Ataun eta Gipuzkoako datuak berdinak direlarik.

Euskararen ezagutza

Ataun herri euskalduna da. 2001eko Euskararen datu basearen arabera populazioaren 97,6%ak euskaraz daki (35 biztanle dira soilik euskaraz ez dakitenak). Kopuru hauek mantentzeko joera izan dute, baina hala ere, azpimarratu behar da, azken urteetako atzeritarren etorrerarekin gehitu egin dela euskaraz ez dakitenen kopurua.

Auzoen artean ezberdintasunak ematen dira hizkeran, auzo bakoitzak bere hitz eta ahoskera propioak dituelarik.

Ondorengo taula eta grafikoan euskararen ezagutza eta erabilpenaren inguruko datuak jasotzen dira.



Eremua	Urtea	Guztira	Euskaldunak	la Euskaldunak	Erdaldunak
Euskal Herria	2001	2.829.751	779.788	552.871	1.497.091
Gipuzkoa	2001	656.499	337.796	129.183	189.520
Goierri	2001	61.902	38.234	9.027	14.641
Ataun	2001	1.511	1.430	46	35

*Datuak Euskararen Datu Basetik jasoak, 2001.

Lana

Ekonomi jarduera nagusiak industrian daude, artzaintza eta nekazal jarduerak ere neurri batean mantentzen direlarik. Industrian lan egiten duten ataundar gehienek, bailarako industri guneeetan egiten dute, CAF eta honen inguruko industrian alegia.

Langabezia tasari dagokionez, hurrengo taulan hainbat datu aurkezten dira:

Hiruhilabeteak	Ataun	Goierri	Gipuzkoa	E.A.E.
3. 2008	%4,06	%6,39	%7,66	%8,40
4. 2008	%4,78	%7,99	%9,21	%10,18
1. 2009	%6,19	%9,68	%10,87	%12,00
2. 2009	%6,75	%9,40	%10,45	%11,50
3. 2009	%6,75	%,10,05	%11,12	%12,23

*Datuak Lanbide.net-etik jasoak (2009ko abendua)

Aurreko taula honetan nabarmendu daiteke langabeziak gora egin duela Ataunen azken urtean. Langabezia tasa, urtebetean, % 2,69 igo da hain zuzen ere. Ataungo datuak Goierrikoekin alderatuz portzentaia azpitik dagoela ikus daiteke, are gehiago Gipuzkoa eta E.A.E.-ko datuekin alderatuz, Ataungo langabezia tasa baxuagoa da.

	Generoa	< 25 urte	25- 34 urte bitartean	35-44 urte bitartean	> 44 urtetik gora	Guztira
Ataun	Emakume	1	9	7	5	22
	Gizon	7	8	6	5	26
Goierri	Emakume	97	278	233	362	970
	Gizon	181	260	246	319	1.006
Gipuzkoa	Emakume	4.777	15.729	12.527	25.878	63.173
	Gizon	7.409	17.433	14.874	20.492	60.208

*Datuak Lanbide.net-etik jasoak (2009ko abendua)

Azken taula honetan, generoaren eta adinaren arabera kalkulaturako langabezia tasa agertzen da. Ataunen, emakume eta gizonezkoen arteko langabezia tasa oso parekoa da. Desoreka nabariena 25 urte baino gutxiago dituztenen artean dago, 7 gizon eta emakume bakarria daude langabezian.

Biztanleriaren jatorria

Ondorengo taulan, atzerritarren beraien jatorrizko herrialdearen arabera azaltzen da:



		Europar Batasunekoak		Europar Batasunetik Kanpo	
Ataun	Bulgaria	1	AEB	1	
	Errumania	13	Argentina	3	
	Eslovaquia	3	Dominikar Errep.	2	
	Frantzia	1	Egipto	1	
	Irlanda	1	Ekuador	1	
	Italia	1	Kuba	2	
	Portugal	11	Maroko	14	
			Txile	2	
Guztira		31		26	

**goierrri.org/goieki-tik jasoak 2009-01-01ko datuak*

Biztanleriaren jatorriari dagokionez, 57 atzerritar zeuden 2008 bukaeran, populazio osoren % 3,53. Europar Batasunetik kanpokoan portzentaia (%1,92) eta Europar Batasuneko populazioaren (%1,61) oso parekoak dira. Generoari dagokionez, gizonezko atzerritarrak gehiago dira (30 biztanle) emakumezkoak baino (27). Gipuzkoako datuekin alderatuz (%5,7) Ataungo portzentaia baxuagoak dira.

Azken urteetako joera atzerritarren kopuruaren gehitzea izan da (2008an 52 pertsona), gutxi baina goraka egin duelarik etorkinen tasak.

1.3. Ataungo haur, nerabe eta gazteek erabiltzen dituzten zerbitzu eta ekipamenduak

Ataun herri txikia da eta herrian auzoguneak oso sakabanatuta eta baserri asko egoteak zailtasunak suposatzen ditu zerbitzu eta ekipamenduen garapenean. Hau horrela izanda orokorrean dagoen eskaintza jaso eta ondoren auzo nagusietan dauden zerbitzu eta ekipamenduak bereiztuko ditugu.

Herrian haur hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen dituen eskola dago, Joxemiel Barandiaran Herri Eskola. Momentu honetan, eraikina handitzeko lanak egin behar dituzte bertan, herriari zerbitzua ematen dion espazioa den heinean eta haurren kopuruan ematen ari den igoerari egokitzeko neurri bezala.

Herrian, haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko udal zerbitzu edota ekipamendu berezko bakarra udako eskaintza da, besteak eskolak, elkarte edota gurasoek kudeatutakoak dira.

Haurrei eta nerabeei egiten zaien eskaintza kirolarekin lotutakoa da. Orokorrean eskola kirola edota elkarteen bidez bideratzen da. Udalak elkarteei beren ekintzetarako dirulaguntza emanez edota udako eskaintzaren barruan kokatzen da.



Udako eskaintzaren barruan, 4-7 urteko haurrentzako 'udalekuak' daude. Uztailan zehar egiten den goizeko eskaintza da, auzo nagusietan garatzen da eta gurasoak dira batera edo bestera eramatearen arduradunak.

Horretaz gain 7 urtetik gorakoentzako ikastaroak antolatzen dira, kirolarekin lotura estua izaten dute eta egin beharreko eskaintzaren inguruan modu informalean galdetzen zaie.

San Martin Auzoa

Biztanleria gehien duen auzoa da, Udal zerbitzu gehienak hemen kokatzen dira.

Kirol instalakuntzak: frontoia, gimnasio bezala egokitutako txokoa eta inguruko pistak oso erabiliak diren baliabidea dira, eskolaren ondoan daude. Bertan eskola kirola eta ikastaroak egiten dira, elkarte eta banakoek ere erabiltzen duten espazioa da, honen ardura duen pertsona batek kudeatzen du.

Eskola ondoan egoteak, inguruan haur eta guraso asko egotea suposatzen du. Lehen ping-pong mahai bat zegoen eta honek nerabeak asko erakartzen zituen, bazuten egoteko espazio txiki bat baina gaur egun hau itxita dago bertako materialetan egondako apurketak direla eta. Asteburuetan nerabeentzako bilgune bat ere bada.

Frontoia egunero zabaltzen da 9etatik - 22ak arte. Asteazkenean zehar, goizean eta arratsaldeko 18:30arte eskolak eta eskola kirolak lehentasuna daukate, hortik aurrera elkarteek eta gero banako herritarrek. Erabilera doan da, nahiz eta espazioa erreserbatu eta argia nahi bada ordaindu egin behar den. Udan asko erabiltzen den baliabidea da.

Liburutegia auzoko erdigunean dago, asteazkenean zehar arratsaldeko 17:00-19:00 artean eta larunbatetan 10:00-12:00 artean zabaltzen da. Eguraldi txarra dagoenean bertako guraso eta haurrek asko erabiltzen duten espazioa da. Hala ere ez dago horrelako erabilerarako egokitatea, eta nahiz eta batzuetan gatazka txikiak egon daitezkeen erabilera hau onartzen da.

Atsedentoki edo jubilatuen gunea. Egunero erabili daitekeen espazioa da, herritar guztiei irekia nahiz eta jubilatuek espazio propioa edo lehentasunezkoa izan. Ordutegiari dagokionez arratsaldeko 20:00etatik aurrera atea ez da irekitzen. Bertan telebista, jolasak, mahaiak eta kafe makina dago eta behar izanez gero sukaldea ere erabili daiteke, jubilatuek lehentasuna daukate. Meriendak egiteko edota eguraldi txarrarekin erabiltzen den espazioa da. Nerabeek topaleku bezala erabili izan dute noizbehinka baina gatazka sortu ziren eta erabilera txikiagoa da.

Herri antzokia plazan dago. Bertan zine emanaldiak eskaintzen dira nagusiki, haurrentzako igande arratsaldetan izaten dira. Bestela ere kontzertuak, antzerkiak, jaialdiak... egiteko aukera dago.

Oargi elkartearen lokala 16 urtetik gorako nerabe-gazteek erabiltzen dute. Bazkide izan beharra dago erabiltzeko edota bazkide den norbaitekin joan.



Bertan ping-pong, futbolina, musika entzuteko aukera... daude. Berez kultur eta kirol elkartea da baina erabilera nagusia bertako bazkideen topalekuarena da.

San Gregorio auzoa

Elkargunea bertako ekipamendu aipagarriena da. Plazan dago eta bertan espazio eta ekimen ezberdinak daude. Horien artean haurrentzako aipagarriena Jolas gela da. Bestela, hitzaldiak, proiektzioak, tailerrak... egiteko aukera dago.

Jolas gela San Gregorioko gurasoek kudeatzen duten espazioa da, Elkargunean kokaturik dago. Haurrekin egoteko espazio baten beharra ikusi zuten guraso batzuek Udalarri eginiko eskaera batean dauka sorrera.

Normalean 0-12 adin tarteko hurrek erabiltzen dute, beren gurasoek bertako giltza daukate eta honen antolaketa eta garbiketaren kargu egiten dira, errotazio sistema bat daukate honetarako.

Materiala gurasoek jartzen dute, etxetik edota gabonetan bildutako diruaren parte bat erabiltzen dute honetarako (bestea eskolari ematen diote). Normalean neguan eta eguraldi txarra egiten duenetan erabiltzen da, bestela ere meriendak eta ospakizunak egiteko.

Frontoia plazan bertan dago. Irekia eta erabilera librea dauka. Hala ere hurrek arratsaldeko 18:30ak arte lehentasuna daukate.

Artadi elkartearen lokala 16 urtetik gorako nerabe-gazteek erabiltzen dute. Bazkide izan beharra dago erabiltzeko edota bazkide den norbaitekin joan. Bertan ping-pong, futbolina, musika entzuteko aukera... dago. Berez kultur eta kirol elkartea da baina erabilera nagusia bertako bazkideen topalekuarena da.

Aia auzoa

San Martin eta San Gregorio auzoetatik urrun geratzen den auzoa da, mendian kokatua

Frontoia da auzo honetako instalakuntza bakarra, egun kristalera batek ixten du neguan estalia eta babestua egoteko aukera ematen duelarik.

Bestela *Auzo Elkartea* dago, bertan adin guztietako pertsonak elkartzen diren espazioa da.

2. ATAUNGO HAUR, NERABE ETA GAZTE POPULAZIOAREN EGOERA

2.1. Haur, nerabe eta gazteengan eragiten duten joera ekonomiko, kultural eta sozialak



Etengabe aldatzen ari den gizarte batean bizi gara eta horrek eragin zuzena du haur, nerabe eta gazteengan. Ondorioz, gaur egungo gazteen eta duela hamabost urteko gazteen ezaugarriak desberdinak dira.

Haur, nerabe eta gazteen premiak ezagutu nahi baditugu, gizartean eman diren aldaketak kontuan hartu behar dira.

Hona hemen egungo gizartea markatzen duten joerak:

Ekonomia joerak:

- Globalizazioa: hazkuntza ekonomikoa eta garapen pertsonala eta profesionala gehiago hedatzeko aukerak eskaintzen ditu. Baina, bestalde, negatiboagoak diren beste ondorio batzuk ere baditu, esate baterako: estatuak ahultzea, urrakortasuna areagotzea (arriskuaren gizartea), etab.
- Lan ezegonkortasuna: aldi baterako kontratuak, ezkutuko ekonomia areagotzea, lan merkatuan txertatzeko zailtasunak prestakuntzarik gabekoentzat,...
- Gizarte polarizazioa: gizartean txertatutakoen eta baztertutakoen arteko aldeak gero eta nabariagoak dira. Gazteak, emakumeak eta etorkinak dira arrisku egoera larrienean aurkitzen direnak.
- Une honetan, mundu mailako krisialdian gaude, oraindik noraino iritsi daitekeen oso argi ez egon arren.

Gizarte joerak:

- Aldaketa demografikoak: bizi itxaropena hazten ari den bitartean jaiotza-tasa, beherantz joan da azken hamarkadetan, beraz, biztanleak gero eta zaharragoak dira. Joera hau aldatzen doa eta jaiotza-tasa gorantz doa erritmo txiki batean. Bestalde, migrazio-mugimendua gero eta handiago da.
- Aldaketak familian: emakumeak lan munduan sartu dira, eta lana eta familia adiskidetzeko oso neurri gutxi jarri dira abian; haurren eskubideak aitortu dira; gazteak gero eta beranduago doaz gurasoen etxetik;...
- Aldaketak familien egiturari: guraso bakarreko familiak, izatezko bikoteak, bigarren ezkontzak, bakarrik dauden pertsonak,...

Kultura joerak:

- Kultur kontsumismoa eta bateratasuna: kultura kontsumo produktu bilakatu da, hainbat lekutan produktu bera kontsumitzen da.
- Kultur artekotasunak zuzenean eragina du erkidegoaren kulturean.
- Banakako desberdintasunen eskubidea aitortu egin da eta diskriminazio positiboa onartu egin da.
- Gizarte eragin berriak: gizarte agente tradizionalak nagusitasuna galdu dute (familia, eskola,...) eta sozializatzeko agente berriak agertu dira (kalea, berdinen taldea, aisialdia, teknologia berriak,...). Azken horiek banakakotasuna eta lehiakortasuna areagotzen dute.



- Aldaketak gizarte partaidetzan: militantzia desagertu da eta noizbehinkako partaidetza sortu da.

2.2. Haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak

Esan den bezala, egungo gizarteak adierazitako joera berriek gizarte aldaketa nabaria sortu dute, eta horrek haur, nerabe eta gazteen egoeran eragin zuzena du.

Hona hemen, gizarte testuinguruan emandako aldaketek haur, nerabe eta gazteen egoeran sortutako zenbait ondorio:

Emantzipatzeko batez besteko adina altua da, alde batetik, langabeziaren eta lan ezegonkortasunaren eraginez, eta bestalde, etxebizitzaren prezioak oso garestiak direlako. Horrek oinarrizko eskubideak baztertzen ditu (lanerako eta etxebizitzarako eskubideak), eta ia gazte guztiei eragiten die, izan ere, heldutasunera iristeko bidea eta euren bizitza proiektuaren garapena oztopatzen ditu.

Arrisku faktore berriak azaleratu dira haurren eta nerabeen babesaren aurka: gurasoek seme-alabekin denbora gutxiago ematen dute, sozializazio agente tradizionalak krisian daude, gero eta goizago sartzen dira helduaren kontroletik at dauden sozializazio gunetan eta harreman gunetan, ... Era horretan, nerabeen eta gazteen osasuna kaltetu eta haien bizitza ibilbidea arriskuan jar dezaketen arrisku portaerak gero eta gehiago ugaltzen dira: kontsumoak areagotzea, trafiko istripuak, haurdunaldiak eta abortuak nerabetasunean, desoreka psikologikoak batez ere nerabetasunean,...

Haurrenganako eta nerabeenganako arreta premiak areagotu dira, familian emandako aldaketen eraginez:

- Gizonek egokitutako rol aldaketetara egokitzeko zailtasunak dituzte... edota emakumeek jardunaldi bikoitzak dituzte, horrenbestez, familiarentzako ondorio negatiboak sortzen dira.
- Laguntzarako premiak eta aisialdiko jardueren eskaera areagotu dira, astean zehar, Gabonetan, Pazko garaian eta uztailean.
- Aitona-amonak gero eta garrantzitsuagoak dira ordezeko zaindari eta haurrentzako erreferentzia irudi gisa.

Adingabeko etorkinen kopurua pixkanaka gero eta ugariagoa da. Pertsona eta familia etorkinek kultura talkari aurre egin behar diote. Haien aisialdiko eta laneko ikuspegia, gizon eta emakumeen arteko harremanenena, hazkuntza eta sozializazio jarraibideak,... gureak ez bezalakoak dira eta horiek barne hartzen dituzten gizarteok ere ez gaude beste kulturetako pertsonekin batera bizitzeko prestaturik.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera gero eta garrantzitsuagoa da gazteen artean. Messenger, Facebook, Tuenti, eta sms bezalako tresnak agertzeak berdinen artean erlazionatzeko era berriak sortu ditu, baita lagunak etxean sartzeak ere.



Gazteen partaidetza moduak aldatu dira. Gazteek gero eta gutxiago hartzen dute parte elkartetan, alderdi politikotan edo sindikatutan. Oro har, nahiago dute noizbehinka parte hartzea, formalizatu gabeko moduan. Horrez gain, elkartetan parte hartzen dutenean, horiekiko sortzen duten lotura iraganean baino laburragoa eta ahulagoa da eta parte hartzeko motibazioak dibertsifikatuagoak daude. Besteekin elkartzea, dibertsioa, garapen pertsonala edo etorkizun profesionalerako gaitasunak bereganatzea bezalako alderdiei lehentasuna ematen diete.

Administrazioak hiritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen oinarriak finkatzeko garaian, funtsezkoa da BEHARRA kontzeptua ulertzea. Beharraz ari garenean ez dugu eza edo gabezia esan nahi, baizik eta, pertsonaren eta inguruaren arteko mendekotasun harremana eta, hein berean, pertsonak inguru hori eraldatzeko dituen ahalmenak. Gizakiaren beharrak aipatzen direnean giza eskubideena da gehien onartzen den erreferentzia-erreferentzia eskema.

Pertsonak dituzten behar guztiak ez dituzte eskaera bilakatzen, eta batzutan, ez dituzte sentitu ere egiten. Haur, nerabe eta gazteen kasuan sentitzen ez dituzten behar batzuk badituzte. Beharren eta eskaeren artean desberdintzeak ez du esan nahi haur, nerabe eta gazteek adierazitakoak ez direla erreferentzia-gune nagusia, baizik eta, zerbitzuak diseinatzeko orduan ez garela soilik beraiek adierazitako beharretara (eskaerak) mugatuko.

Gipuzkoako Haur eta Gazteria Sustatzeko Sistemaren ikuspegiaren arabera haurrek, nerabeek eta gazteek behar hauek dituzte:

- Giza duintasuna babestea, errespetatzea eta aitortzea.
- Dibertitzea, gozatzea eta bizitzaz gozatzea.
- Maitasuna eta estimua jasotzea, familia inguruarekin, taldearekin eta erkidegoarekin mantentzen duten harremanen bidez.
- Haien burua pertsona gisa ezagutzea, eta, halaber, ingurua (tokikoa eta orokorra) eta bertan agertzen diren aukerak eta mehatxuak ezagutzea.
- Erabakiak hartzea, arrazoizko arriskuak bere gain hartzea, aukeratzea, hautatzea.
- Gaitasunak, trebetasunak, bizitzarako portaera erabilgarriak bereganatzea eta garatzea.
- Adieraztea eta parte hartzea.
- Norbere bizitzaren protagonista sentitzea, erabilgarri, eraginkor, inguruan eragiteko gai sentitzea.
- Hezkuntza sistema formalean txertatzea eta aurrera egitea, hezkuntzarekiko eskubidea aitortzeko modu nagusi gisa.
- Osasuna babestea eta sustatzea, bere osasunarekiko eskubidea aitortzea bermatuko dion osasun sistema publiko batean sartzeko eskubidearekin.
- Etxebizitza duin bat, egonkor eta segur bizi ahal izateko etxe bat, bertakoa sentitu eta bere nortasuna garatu ahal izateko.
- Hala dagokionean, lan merkatuan parte hartzea, bere gaitasunekin bat egiten duen lan duin bat lortuz, behar bezala suspergarria eta behar bezala ordainduta.



- Bere autonomia pertsonala eta erkidegoko partaidetza babestea eta sustatzea, gizarte zerbitzuetako sistema publiko batean sartzeko eskubidearekin (sistema nagusia, gainerakoan, adin txikikoen babesean).
- Oro har, pertsonen gizarte ongizatea eta bizi kalitatea bermatzen duten ekonomia, kultura edo bestelako baliabide eta ondasun guztiak eskura izatea.

Horiek guztiak behar orokorrak dira, eta gure ustez, Administrazioa horiek guztiei erantzuteko gai da. Jakina; pertsona bakoitzarengan eta bizitzaren une bakoitzean (haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan) modu desberdinean taxutzen eta adierazten diren beharrak dira.

Haurren, nerabeen eta gazteen premiak etengabe ebaluatu behar dira, eta erantzun egokiak planifikatu behar dira. Haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroko etapak dagozkien balio eta zentzuarekin bizi ditzaten, eta heldutasunerako behar bezala prestatu daitezten.

2.3. Ataungo haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak

Atal honetan, Ataungo haur, nerabe eta gazteen egoera eta joera nagusiak jasotzen dira, herrian zer egiten duten eta ze aukera daukaten, nola erabiltzen duten beren denbora eta abar.

Haurren joera eta egoeraren inguruan jasotakoa helduen iritzi eta esanetan oinarritzen da, ez zaie zuzenean beraiei galdetu eta aurrera begira kontuan izateko esparrua da.

Bestalde, zeharlerroei dagokienez, inmigrazioa, behar bereziak, generoa... azaletik landutako gaiak izan dira eta hemen ere sakondu beharra dago. Aurrera begira, azterketa sakonago bat egin beharko litzateke eta dauden behar eta premiei erantzuteko bideak adostu.

Integrazioaren inguruan jasotako komentario adierazgarria da, *Goiekik* etorkinen parte hartzearekin Ataunen eginiko saio batean, herrian integratzea oso zaila zela adierazi zuten, bertako norbaitekin herrira joatea errazagoa bada ere.

Honetaz gain, aurreiritzi eta estereotipoak ugariak direla eta seme-alabak izan edo ez herrian integratzeko garaian aldagai garrantzitsua dela jaso da. Herrian ez omen dago bizitza soziala sustatzeko espazio edo ekimenik.

Haurrak (0-12)

Ataungo hurrek hezkuntza aldetik duten eskaintza Joxemiel Barandiaran Herri Eskola da. Eskola San Martin auzoan kokatzen da. Bertan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza burutzeko aukera dago. D eredua da dagoen eskaintza eta aurten 180 ikasle izan dira matrikulatuak eta 22 irakaslek egiten du lana bertan. Eskolak eskaintzen dituen zerbitzuen artean: jangela, garraioa, zaintza zerbitzua, musika eta ingelera dira.



Haurreskola zerbitzua ere ematen da, 0-2 urte bitartekoei eskainia. Goizeko 8:00etatik 17:30ak arte dago zabalik eta 2009/10 ikasturtean 11 dira zerbitzu honen erabiltzaile diren umeak.

Asteazken zehar eta eskolaz kanpo hainbat jarduera burutzen dituzte (musika, eskola kirola...) baina kalean jolasteko astia ere izaten dute orokorrean.

Asteburuetan, lagunekin ateratzen hasten diren arte, gurasoen planen arabera ibiltzen dira, eta normalki herrian bertan edo inguruko herrietara joaten dira. Larunbata goizetan eskola kiroleko partiduek ere garrantzia handia dute.

Parkeak, Elkargunea (San Gregorio), frontoia eta plazak dira topaleku nagusiak. 9 urterekin beren kasa egoten hasten dira, bakoitza bere auzoan. Lagunen baten urteak ospatzeko beste auzoetara joan behar badira gurasoek eramaten dituzte.

Oporraldi garaiari dagokionez, uztailean Udalak antolatzen dituen udaleku irekietan parte hartzen dute, Normalean gutxi eta txikiak parte hartzen dute. Jasotakoaren arabera beti berdina delako eta dinamikak txikienezako prestatzen direlako. Azkenerako haurrak aspertu egiten dira eta ez dute joatea eskatzen.

Udaleku hauetaz gain, 7 urtetik gorako haur eta nerabeei udan kirol eskaintza berezia egiten zaie. Hauetan parte hartzea badago.

Koadrilak eskolaren eta bereziki auzoaren arabera sortzen dira. Gurasoengandik berezitateko planak egiten hasten dira. Taldeetan neska eta mutilak bereiztuak egotea ohikoa da, nahiz eta adin tarte eta sexu ezberdinekoak ere elkarren artean nahasten diren. Kanpokoak diren haurren kasuetan esan daiteke hasieratik sartzen direla lagun taldeetan, eskolak betetzen duen papera garrantzitsua izanik hauen integrazioa modu naturalean gertatzeko.

Denbora librearen erabileran eta bere adinekoekin dituzten harremanetan auzogunetan edota baserrietan bizitzea oso ezberdina da. Baserrietan bizi direnak beren adinekoekin egoteko aukera gutxiago daukate eta gertuko bizilagunekin egiten dituzte taldeak.

Aipatzekoa da Ataungo haurrek duten autonomia nahiko altua dela. Herri txikia izanik, kalean beren kontura egoten goiz hasten dira.

Nerabeak (13-17)

Aipatu dugu dagoeneko Herri Eskolak duen eskaintza Lehen Hezkuntzan amaitzen dela. Beraz, nerabeei Ataundik atera behar izaten dute beraien ikasketekin jarraitzeko. Honela, DBH, Batxilergo edo Lanbide Heziketako ikasketak Beasain, Lazkako edo Ordizian burutzen dituzte.

Aldaketa handia ematen da nerabeengan DBHko lehen mailatik aurrera. Beste harremanak egiten dituzte, "mundua deskubritzen hasten direla" jaso da, 'espabilatzen' dutenaren inpresioa dago. Koadrilak mantentzen badira ere, ikasten duten herrikoekin ere nahasten dira.



Gurasoekin pasatzen duten denbora asko murrizten da haurtzaroarekin konparatuz, eta lagun taldeak garrantzia gero eta handiagoa hartzen du.

Astean zehar, ikastetxera joan eta klase partikularrak edo kirol entrenamenduak izaten dituzte, gero herrira bueltatzen dira, etxera normalean.

Asteburuetan Ataunen geratzen dira, baina Beasain eta Ordiziara ere joaten dira, zenbaitetan Donostiara joaten dira, kasu honetan eguna pasatzen dute bertan eta uda garaian izaten da nagusiki. Herrian geratzen direnean bakoitza bere auzoan egoten da, eta nonbait elkartzekotan San Martinen izaten da. Aiakoak apenas jaisten dira, bi autobus besterik ez daukate eta ez die merezi. Gau partean lagunekin afaldu edo bokadilo bat hartzen dute. Igandean ia beti herrian bertan geratzen dira.

Herrian daudenean kalean egoten dira, arkupetan, frontoian edo bueltaka. Ez daukate egoteko espazio propiorik eta denentzako direnetan ez dute nahi haina intimitate aurkitzen, gainera beste erabiltzaileek lehentasuna dute.

Uda partean, Beasaingo piszinetara joaten dira baina erre kara ere joaten dira. Hona bizikletaz joaten dira. Inguruetako herrietako jaiak hasten direnean, herritik gehiago mugitzen dira. Mugikortasunari dagokionez autobusak erabiltzen dituzte, baina gutxi dira eta taxia garestia da beti erabiltzeko. Gurasoek betetzen duten papera oso garrantzitsua da joan etorriak egiteko.

Uda eta neguaren arteko ezberdintasuna handia da, neguan gutxiago egoten dira kalean.

16 urteren bueltan Oargi edo Artadira joateko aukera daukate bertako bazkide badira edo bazkide den norbaitekin badoaz, baina gutxi batzuk dira hau egiten dutena, bertan egoen den jendea helduagoa izan ohi delako eta beste giro bat delako. Herriko jaietan oso gustoko duten lokala da.

Lokal pribatuen erabilera udalerrri askotan nabaritzen den arren, ezta Ataungo kasua. Lokalei dagokienez, koadrila batek musika jotzeko Udalak Oargi ondoan duen lokala erabiltzen du. Udalari eskatu zioten, lokala erabilera gehiago dituzenez beren ardura da erabiltzen dutenean espazioa garbitzea.

Arrisku sustantzien kontsumoei dagokienez, alkoholarekin lehen kontaktuak 14-15 urterekin ematen dira, herriko jaietako garaian. Halere ezta oso nabarmena izaten urte batzuk pasa arte. Tabakoaren eta kalamuaren kontsumoa ere ezta oso altua nerabeen artean.

Teknologia berrien erabilpenari dagokionez, gehienek internet erabiltzen dute maiztasun handiarekin. Erabilpen hori messenger-arekin hitz egitera, txateatzera eta jokoetan ibiltzean oinarritzen da batez ere, nahiz eta Tuentia eta bestelako sare sozialek gero eta erabilera handiagoa ere baduten.

Gazteak (18-30)

Nerabezaroan hasten den joerarekin jarraituz, astean zehar eta asteburuetan tabernak, Oargi edo Artadi dira gazteen topaleku nagusiak.

Koadrilak jadanik eratuak daude gaztarorako, garrantzitsuak dira eta normalean kintoek, neska eta mutilak, osatzen dituzte. Herritik kanpo ikasten dute baina gutxi dira kanpoan bizi direnak, normalean Donostia, Ordizia eta Arrasaten ikasten dute.



Ikasketak lanerako ikuspegia eta generoarekin lotura zuzena dute, mutilek industria eta ingeniariarekin lotutako ikasketak egiten dituzten bitartean neskek heziketarekin lotura dutenetara jotzen dute.

Lana oso elementu garrantzitsua da, askatasuna eta autonomia, baliabideak eta mugikortasuna irabazten dute. Normalean CAF edo inguruko industrian egiten dute lana.

Ataungo gazteek dirua badutela esaten da, lanean goiz hasten direlako edo ikasten badaude etxean ematen dietelako. 18 urte bete eta berehala gidabaimena eskuratzea oso ohikoa da eta autoa erostea ere azkar egiten den zerbait da.

Astean zehar ikasten ez dagoena lanean dago eta atsaldeko 'kafeaz' aparte kirola da jarduera nagusia.

Asteburuetan beste herrietara joatea da ohikoena, aurretik Ataunen bertan 'poteoa' egin eta gero, taberna gehienak San Martinen daude. Herriko gazteen dinamika markatua dago; poteoa herrian, kanpoan afaldu (jatetxe batean normalean) eta beste herrietan parranda egin. Negu partean sagardotegietara edota eskiatzera joaten dira.

Aipatzekoa da arrisku sustantzien kontsumoei dagokienez iritzi ezberdinak jaso direla, gehiegikeriarik egiten ez denaren ustetik, arazo handia dela ikusten deneraino, gehiegizkoa dela eta astean zehar eta asteburuaren arteko ezberdintasunak handiak direla.

Etxebizitzan zentratuz, herrian bertan etxea erosteko joera dago baina alde handia dago etxebizitza tasatua edo babes ofizialekoa egokitu zaizun edo ez. Errostea izaten da normalena. Gaztearen jatorrizko auzoak garrantzia dauka etxebizitza aukeratzeko garaian, baina honek ez du gazteen arteko harremanetan eraginik izaten.

Gazte mugimendua badago herrian, eta azken urteetan beherakada bat eman dela antzematen den arren, egoten jarraitzen du. Horren adibide gazte elkartegintzan Oargi eta Artadi elkarten ibilbidea dira. Hala ere gazte mugimenduak politikak asko baldintzatu ditu eta horrelako mugimenduak aisialdia eta kulturarekin lotura estuak izateko zailtasunak suposatzen du.

Nerabe eta gazteek ez daukate udalarekin harremanak eta komunikazioa egiteko bide edo erreferentziarako pertsona berezkorik, beste herritarren antzera, eskaerak egin nahi dituztenean eskaera orria bete eta deiaren zain geratzen dira. Hau ez da arazo bezala bizi baina aukera egotekotan bide hauek errebisatzea komenigarria ikusten da. Udalak ez omen dauka gazteen iritziaren berririk, ezta hauen behar eta nahien ezagupenik ere.

Beharrak

Jaso ditugun datuen arabera orokorrean haur, nerabe eta gazteak eta eragile ezberdinak herrian hauentzako ezer gutxi dagoela adierazi dute. Egia da, Ataunek duen egitura eta baliabideak kontuan izanda, eskaintza anitza eta gertukoa egiteko aukera zaila dela. Halere, hauek dira jaso diren beharrak eta lehentasunak:

Denentzako argi dagoen beharra eta lehentasunezkoa dena nerabeentzako eskaintza egokitu bat da.

Nerabeak dira beraientzako zerbait behar dutenak. Ez daukate beraientzako eskaintzarik ezta egoteko berezko espaziorik. Asteburuetan bereziki. Egoteko espazio



baten beharra ikusten da, gazteleku moduko bat non ikastaroak eta tailerrak eskainiko zaizkien. Honetaz gain, beren ekimenak aurrea eramaten laguntzeko pertsona baten beharra ikusten da, profesionala dena eta Udalarekin komunikazioan laguntzen diena. Beraien parte hartze eta inplikazioarekin. Garrantzizkoa ikusten da nerabeen beraien parte hartzea eta beraien iritzia jasotzea.

Egoteko lokal bat, Oargiren antzera baina beraientzako.

Nerabeen beharrez gain orokorra den beste lehentasun bat adierazten da: erreferentziatzeko pertsona baten beharra. Nerabeentzako ikusten den erreferente honen parera orokorragoa izatea, nerabe eta gazteentzat alegia. Pertsona hau herri osoaren ikuspuntua ez galtzea, neutroa izatea eta Udala eta gazteen arteko bitartekaritza egiten duena.

Erreferentziatzeko pertsona honek elkarten arteko harremanak bideratzea eta herrigintza udalaren bidez sustatzea. Honetaz gain, arloaren garapenerako Udal planteamendu orokor bat lantzea eta Udal barruko koordinazioa eskatzen dira.

Haurrei dagokienez behar eta eskaera ezberdinak egiten dira:

Haurrentzako espazio propio bat, gurasoengandik aparte beste haurrekin harremanak eskola ez den beste eremu batean egiteko aukera ematen diena. Bertatik haurrentzako eskaintza erakargarria egiteko aukerarekin.

San Gregorion jolas gela dagoen moduan, San Martinen antzeko zerbait egiteko aukera, espazio bat. Ildo berean, San Gregorion egiten den eskaintza beste auzoetan bikoiztu beharrean hau bera herri guztiarentzat zabaltzeko modua adostea.

Udalekuak beste modu batean antolatzea, zerbitzu egoki bat eskaintzea. Parkeak hobetzea.

Gazteentzako aldiz, eskaintza kultural zabalagoa, kirolean oinarritua soilik ez egotea eta asteburuetan herritik atera ordez, bertan geratzera motibatzen dituen zerbait (antzerkia, kontzertuak...). Baliabideak mugatuak direla jakinda.

Azpiegiturei begira:

Kultur etxe bat edo kulturgune bat. Zerbitzuak zentralizatzeko aukera ematen duena.

Kirol instalakuntzak hobetzea, gela balioanitzak, gimnasio egokia edota San Gregorioko frontoian rokodromo bat jartzea. Igerileku bat ere eskatzen da baina uda parteari begira nagusiki.

Auzoen arteko mugikortasuna handitu eta hauen mugak gaintzeko ekimenen bat. Eta mugikortasunaren ildo berean, auzoak lotzen dituen bidegorri bat, edo dagoen bidea egokitzea. Esparru berdinean, garraioa hobetzea

Autobus zerbitzua ez da ondo baloratzen maiztasun eta ibilbideak direla eta, baina nahiz eta eskaintza zabala egon inork erabiliko lukeenaren zalantza ere badago.

Azkenik parte hartzearekin lotuta, herritarren ahotsa entzuteko esparruen beharraz hitz egin da, benetako prozesuak izatea eta ez soilik informatibo hutsak. Mesfidantza puntu bat ere azaldu da udalaren jarrerarekiko, parte hartzea diskurtsora mugatzen ez ote den da zalantza.



2.4. Ataungo elkartegintza

Elkartegintza gazteek zuzenean parte hartzen duten espazioa da. Bertan beraien ekimenak taldean garatzen dituzte .

Gazte elkarteak hiru motakoak izan daitezke. Izaera Estrategikokoak, Izaera Orokorrekoak edo Zerbitzura Bideraturiko Elkarteak.

1.- Izaera Estrategikoko Elkarteak: gazteek sortuak dira eta beraien intereseko gaiak jorratzen dituzte. Gazteentzako gazteek egina.

2.- Izaera Orokorreko Elkarteak: gazteek osatzen dituzte, baina elkarte honetatik lantzen diren gaiak ez dira soilik gazteen interesekoak. Adibidez, gazteen talde ekologista.

3.- Zerbitzura Bideraturiko Elkarteak: gazteentzako zerbitzuak edo ekintzak eskaintzen dituzte, baina ez dira gehiengo batez gazteek osatua.

Elkartegintzaz hitz egiten dugunean, ez ditugu bakarrik kontutan hartzen izaera juridikoa duten taldeak (elkarte, fundazio...). Forma juridikorik izan gabe, baina formalizazio maila bat duten taldeak ere kontenplatu ditugu.

Ataungo errealitateari dagokionez, denetarik dagoela esan genezake. Momentu honetan haur, nerabe eta gazteekin zuzenean lotutako 5 elkarte daude herrian:

- Oargi elkarte
- Artadi elkarte
- Guraso Elkarte
- Otsoa dantza taldea
- Kirol elkarte

Badaude bestelako elkarteak:

- Atauniker
- Irakurtalde
- Sastarri
- Kultur elkarteak (Soziedade gastronomikoak)

Lehen biak izaera estrategikoko elkarteak dira, nerabe eta gazteak hartzen dituztenak baina egun hauei zuzenduriko eskaintza oso mugatua da, zenbait txapelketa herriari irekiak, jaietan haurrentzako jolasak egin izan dituzte eta herriari irekitako zine-kluba Artadiren kasuan.

Elkarte hauek herrian historikoak dira eta bertako kulturgintzaren sustapenari ibilbide eta garrantzia handia izan dutenak. Ibilbide naturala omen da hauetan egon eta gero helduen elkarteetara pasatzea.

Jaso dena oinarri izanik, Ataun oso herri dinamikoa eta herrigintzak garrantzia handia izan duen herri izan da. Biztanleen parte hartzea handia zen eta baita komunitatearekin zegoen inplikazio maila ere. Gazteen ibilbide arrunta zen elkarte hauetan parte hartu eta herriari eskaintza oparoa egitea, elkarrizketatutako pertsona helduen gehiengoak hauetako elkarte baten parte izandakoa da. Hala ere azkeneko belaunaldietan herriarekin inplikazio txikiagoa eta jarrera indibidualistagoak ikusten dituzte, nahiz eta hauek ez dizkieten gazteei soilik atxikitzen, gizarte joera orokorraren isla dela adierazten da, bizitza erritmo eta estiloen aldaketa.



Gaur egungo errealitatea bestelakoa omen da, egiten den erabilera ohikoena egoteko gunearena da eta bertan egoten direnak normalean 18 urtetik gorako gazteak dira. Zailtasunak dituzte ekintzak antolatzeko jendea gutxi inplikatzen delako eta denbora gutxi dagoelako. Bi elkarteen artean ekintzak antolatzeko saiakerak egon dira baina oso puntualak eta jarraipenik izan ez dutenak. Jasotakoaren arabera Artadi biziagoa dagoen elkarte da. Udalak lokala uzten die eta bertako gastuen kargu egiten da (argia, mantenua...)

Guraso Elkarteak gurasoentzako hitzaldiak eskaintzen ditu urtean zehar. Nahiz eta hauen arrakasta ez da nahiko luketena. Honetaz aparte eskolarekin gurasoen behatokia parte hartzen dute eta ospakizun berezietan ere inplikatzen dira. Gaur egun daukaten erronka nagusia udaleku irekiak antolatzearena da.

Kirol eta dantza elkarteek beren nortasunarekin lotutako eskaintza egiten dute.

Jasotzen diren bestelako elkarteak herriaren joera baten adierazgarria da, jendea bere interesen arabera elkarteak sortzeko joera dauka. Hala ere elkarteen arteko lankidetzeta edota ekimen bateratuen adibideak topatzea zaila izan da, saiakerak egin dira baina jarraipenik izan ez dutenak.

Aipatu beharreko beste elkarte bat Aia auzoko elkarte da. Bertan adin guztietako pertsonak biltzen dira.

Elkartegintzari dagokionez, herri mailan gazte elkarteen ekimenak laguntzeko dagoen ildo bakarra dirulaguntzena da: Udalak urte hasieran elkarteak edota ekimen bat aurrea eraman nahi duten guztiak bilera batera deitzen ditu eta bertan bakoitzak bere asmo eta proposamenak azaltzen ditu. Ildo honetarako udalak dituen baliabideen arabera interesgarrienak aukeratzen dira eta diruz laguntzen dira.

Ataungo kasuan Ez dago irizpide zehatzik edota haur, nerabe eta gazteekin lotutako ekimenak sustatzeko ildorik. Gazte elkarteei zuzendutako dirulaguntza ildo bereizirik ez dago. Laguntzak ematen dira, baina modu puntualean ekintza konkretuak garatzeko. Batez ere baliabideen transferentziaren bidez sustatzen da elkartegintza herrian.

Elkartegintza sustatzeaz hitz egiten dugunean halere, ez dugu adierazi nahi talde antolatu ezberdinek garatzen dituzten ekimenak finantzatu edo ekimen horiek garatzeko laguntza tekniko emango zaienik soilik, baizik, beraien estrukturak indartu eta kudeaketa gaitasuna sendotzen lagundu ahal zaiela. Era berean, udala saiatu daiteke haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko jartzen diren zerbitzuetan herri bertako elkarteek parte hartzea. Beti ere elkarte hauen ibilbidea eta ekintza eremua, behar hauei erantzuteko modukoa baldin bada.

3. ATAUNGO GAZTERIA POLITIKAK: OINARRIAK, GARAPENA ETA EGUNGO EGOERA

3.1. Udal egitura eta Sustapen zerbitzua

Ataungo Udalbatza alkateak eta 9 zinegotzik osatzen dute, kargu politiko hauek hiru alderdi politiko ordezkatzeko dituzte. Horrela, Herrigintzak 5 eta ANV 4. Hala ere gaur egun legez kanpo geratu diren 4 zinegotzi daude eta Udalaren sail guztien ardura garatzen diren beste bost zinegotzien artean banatzen dituzte. Herrigintzak du alkatetza. Legez kanpo geratu diren zinegotziak Udal Plenoan eta batzordetan parte hartzen dute.



Ataungo Udalak 5 Sail ditu eta hauetako bakoitzak herritarrei irekiak dauden Batzorde Informatzaileak dauzka.

- Kultura, kirola eta gazteria
- Hirigintza
- Mendi Aroa (baserriak eta ingurumena)
- Hazienda
- Gizarte zerbitzuak

Udalaren egitura azaltzean, kontuan hartzeko aldagai zehatzak badaude. Batetik, aurretik aipatu den herriaren egitura fisikoa, auzoen banaketa eta honek zerbitzuen garapenerako sortzen dituen zailtasun eta oztopoak aipatu behar dira.

Honetaz gain, herriaren polarizazioa eta bizi duen banaketa politikoak eragin zuzena daukate Udalarekin dauden harremanetan, baita gazteekin Udalak daukan komunikazioan ere.

Aldagai hauek, haur, nerabe eta gazteen sustapenerako arloaren garapena egiteko kontuan izan beharrekoak dira. Egun konplikatua diren harremanak berreskuratu beharko direlako, eta dagoeneko urriak diren baliabideen erabilera ahalik eta egokiena egiteko adostasuna lortu beharko delako.

3.1.1. Sustapen Arloa

Ataungo Udalean sustapen arloak ez dauka leku bereziturik. Gazteria gaiak Kultura eta kirol Batzordean landu beharko lirake baina egun Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak du honen ardura. Ez dago arloaren ardura hartzen duen teknikaririk.

Ez dago aurrekontu berezirik sustapenetik lantzen diren ekintza eta zerbitzuetarako, kultura sailaren aurrekontuaren barne kokatzen da.

3.2. Ataungo Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera

Ataungo gazteria politiken bilakaeraren azterketa egin ahal izateko, orokorrean gazteria politikek izan duten garapena azaldu beharrean aurkitzen gara. Ondoren adierazten dugun bezala gazteriaz ulertu denak eta gazteria politikek garapen bat izan dute azken urteetan zehar. Halaber 'gazteriaz' hitz egin denean normalean nerabezaro erdialdetik aurrerako adin tartea hartu da kontuan (15 urtetik gora). Gaur egun Gipuzkoako Lurralde Historikoan martxan den Sustapen Sistemaren ordea haurrak ere hartzaile kontsideratzen dira. Haur, nerabe eta gazteen identitatea eta herritartasuna errespetatu eta sustatzeko, eta haur, nerabe eta gazteen autonomia sustatu eta emantzipazioa bultzatzeko prozesu bat eman behar dela ulertzen dugu. Prozesu horren abiapuntua ezin da nerabezaroan jarri. Nerabeek ohitura, balore, joera eta gaitasun batzuk barneratzea nahi badugu txikitatik hasi beharko gara ikaskuntza prozesu horretan. Hortaz, haurtzaroan ere esku hartu beharko da, adin tarte honek dituen beharretara egokitutako zerbitzuak garatuz.



3.2.1. Gazteria kontzeptu eta politiken garapen historikoa

Gazteria kontzeptu aldakorra da eta gizartean ematen diren aldaketek bertan eragina dute. Honela, kontzeptua desberdin ulertu da unearen, lekuaren eta ikuspegiaren arabera.

Gazteria ulertzeko modu desberdinak egon diren bezala, Gazteria politikei buruz hitz egiterakoan ere oso bestelako bertsioak izan dira, gizartean ematen diren aldaketen eraginaren arabera.

Hortaz, une historikoaren arabera, gazteria arloko esku-hartze publikoa desberdina izan da. Frankismo garaian, gazteei zuzenduriko eskaintza batez ere aisialdian murgildu zen, erregimen frankistak eliza katolikoarekin batera osatutako gazte entitateek eskainitako ongintza-laguntzazko jarduera batzuekin batera.

Franco hil ondoren, batez ere aisialdiari zuzenduriko eskaintza garatzen jarraitu zen, baina hezkuntza programarik eta garapen pertsonalik gabe. Gazteen arazoei aurre egin eta konponbideak bilatu ordez, gazteen arazoak baztertzen zituen politika bat garatzen zen.

Aurrerago, Gazteria Zerbitzuak sortzen hasi ziren eta partaidetzazko politikak planteatu ziren. Jardueren ordez, baliabideak eta tresnak eskaintzen hasi ziren: informazio zerbitzuak, aholkularitza zerbitzuak eta aisialdiko eskolak. Partaidetzazko politikekin, gazteek gazteria politiketan parte hartu behar zutela planteatu zen. Horren ondorioz, Gazteria Kontseilua sortu zen eta laguntza ekonomikoak ematen hasi ziren.

1985 urte garrantzitsua izan zen gazteria politiketan. Gazteriaren Nazioarteko Urte izendatu zen, eta Gazteriaren Liburu Zuria argitaratu zen. Gizarte agenteek eta administrazioak elkarlanean jardun behar zutela ikusten hasi zen, eta politika integralen garapenaren alde egin zuten.

Politika integralek gaztaroa emantzipaziorantz eta osoko autonomia pertsonalerantz doan trantsizio alditzat jotzen dute. Eta gazteak gizarte maila heterogeneoko kide gisa jotzen dituzte, eta egoera okerragotik abiatzen direnen alde egiten dute.

Zeharkako politikak dira eta trantsizio prozesuan eragiten duten eremu nagusietan jarduten dute: prestakuntza, lana eta etxebizitza. Helburua gazteak gizartean eta lan munduan txertatzea da.

Hauek dira politika modu hauen abantailak:

- Gazteak homogeneizatzearen kontzeptuarekin hautsi eta profil heterogeneoak dituzten gizarte maila gisa ulertzen den gazteriaren alde egiten dute. Horrek gazteen egoera anitzak kontuan hartuko dituen arreta zehatza eskatzen du.



- Baliagarri dira, hainbat arlotan, gazteei zuzenduriko programak sustatzeko eta finkatzeko.

Bestalde, zenbait eragozpen ere badute, besteak beste:

- Ikuspegi hau toki administrazioan aplikatzeko mugak daude, udalek sektore hauetan eskumen eta baliabide gutxi dituztelako.

- Administrazioan ez dago politika integralen oinarrizko premisak garatzeko ohiturarik: lan koordinatua unitate desberdinen artean, ebaluazio sistematikoa eta hiritarren partaidetza.

Aurrerago '*politika indartzaileak*' deiturikoak sortu ziren. Horiek gazteria talde soziologikotzat jotzen dituzte, gazteak gazte izaeraren arabera lantzen ditu. 'Gaztea' eskubideak eta betebeharrak dituen hiritartzat jotzen da, eta gazte ezaugarriari erreferentzia egiten dieten elementu ez materialak hartzen dira barne. Planteatzen den esku-hartzea gazteria unitate espezifikoen bitartez garatzen da. Proposamenak gazte izaeraren berezko ezaugarriak diren ardatzetan murgiltzen dituzte, eta aisialdiko, kulturako, olgetako eta partaidetzako eremuan jarduten dute.

Hauek dira mota honetako politiken abantailak:

- Gazteria Unitate/Zerbitzu bat izatea eskatzen du, gazteria politiken balioa handitu ahal izateko.

- Gazteenganaino iristen dira, haien eskaerak biltzeko.

Hauek dira eragozpenak:

- Arreta osoa gazteen ezaugarri diren elementuetan jartzearen irudia eskain dezakete, heldu izateko trabak aztertu gabe.

- Gazteen gizarte egoeran eragin mugatua dute.

Gizarte aldaketen sakontasuna eta haurrei, nerabeei eta, zehazki, gazteei eragiten dien modua kontuan hartuta, nahitaezkoa dirudi azken horien aldeko jarduera positiboa bultzatzea eta osoko eta baiezko jarduera bat garatzea, haien garapen prozesuan eta eskubideen aitortzean lagundu ahal izateko, haur, nerabe eta gazten izaeratik bertatik.

Beraz, gazteen bizitza baldintzak hobetzea eta politika integralen bidez emantzipatzeko bidea ematea bezain garrantzitsua da gazteak bezalako itxaropenak eta interesak adierazteko bidea eskura jartzea eta haien ekimenak garatzea, politika indartzaileen politiken bitartez.

Dena den, gazteria politika mota baten aldeko apustua egiteak ez du esan nahi bestearen aurka egotea; hau da, politika integralak ez dira politika indartzaileen aurka jartzen, partaidetzazko politika bat abian jartzeak ez du esan nahi gazteria zerbitzu bat baztertu behar denik,... (Aurrerako sakonki azalduko



dugun arren, gaur egun Gipuzkoan proposatzen den Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemak honetan oinarritzen da, hau da, politika integral eta indartzaileen arteko bateratzean)

Euskal Autonomia Erkidegoa

Gurera etorrita, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1979. urtetik, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu du gazteria gaiari dagokion eskumena. Garai horretan bertan, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza sortu zen. EAEn gazteriari zuzenduriko bi plan garatu dira (1999-2001 eta 2002-2005). Gazte Planek emantzipazioaren, gizarte txertaketaren eta heldutasunaren prozesuan laguntzea dute helburu, eta ikuspegi integrala duen gazteria politikako planteamendu batean oinarritzen dira.

1983. urtean Lurralde Historikoei buruzko Legea onetsi zen. Aldundiek gazteria arloetako garapenean eskumenak izatea ahalbidetu zuena. Orduan, erakunde horiei aipatutako zeregina garatu ahal izateko egiturak sortzen hasi ziren.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoari dagokionez, hamaika urteko ibilbide baten ondoren, Gazteria Zerbitzuak gogoeta estrategikoko prozesu bat planteatu zuen. Horren ondorioz, "2001-2004. urtetako Gazteria Zerbitzuko Plan Estrategikoa" izeneko dokumentua sortu zen. Dokumentu horretan egoera-diagnosi bat hartzen da abiapuntu, Gazteria Zerbitzuak lurraldean garatu beharreko zeregina, ikuspegia, estrategiak eta xedeak definitzeko. Plan horrek administrazio maila desberdinen arteko lankidetzak proposatzen du, Gipuzkoako haur-gazteen kolektiboaren premia guztiak barne hartu ahal izateko. Plan estrategiko horretan zera proposatzen da: Aldundia udalak baliabidez hornitzeko agentzia espezializatu bilakatzea, udalek, hein berean, -gertutasunetik eta gazteek udalei egindako balorazio onetik, eta zerbitzuak eskaintzeko gune naturala delako, besteak beste- haurrei, nerabeei eta gazteei etengabeko arreta eskain diezaieten. Hauek dira GFAtik udalei eskaintzen dizkien zerbitzuak: informazioa, ikerketa eta dokumentazioa; prestakuntza; aholkularitza eta baliabideen transferentzia.

Lehenengo plan estrategikoaren ondoren, "Zerbitzua Berbideratzeko Plan" bat sortu zen, helburu estrategiko berriei zuzenduta. Plan horren ondorio nagusia, 2003ko maiatzean sortu zen Bulego Teknikoa izan zen. Egun, 6 pertsona teknikok osatzen dute eta horiek bere gain hartzen dute Gipuzkoako udalei zuzenduriko aholkularitza zerbitzuaren garapena. Bada Bigarren Gazte Plan Estrategiko bat, 2005-2008. urte bitartekoa. Horrek elementu berriak gaineratu zituen, baina lehenengo planaren orientazioa errespetatu zuen.

Duela gutxi, GFAtik, partaidetzazko prozesu baten bidez (Gaztematika) Haur eta Gazteriaren Sustapenerako Sistema sortzea bultzatu da, honako helburuekin: dagoeneko burutzen diren jarduerak kontuan hartzea eta bistaratzea (hobekuntzaren, egituratzearen eta iraunkortasunaren baldintzen alde eginez) eta agente bakoitzak, erantzukizunak eta eskumenak betez, garatzea



erabakitzen dituen etorkizuneko ekimenetarako erreferentzia esparru orientagarria, sustatzailea, eskuragarria eta malgua eratzea.

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Sistemaren helburua honako hau izango litzateke: *haur, nerabe eta gazteei haien egoera edo prozesuaz disfrutatzeko eta garatzeko bidea ematea, dimentsio bikoitzean: etapa gisa oso adierazgarria den etapa garrantzitsu eta baliotsu moduan eta, heldutasunaren, irakaskuntzaren eta gaitasun pertsonalen eta giza loturen bidez, heldutasun etapainoko trantsizio arrakastatsua eta egokia garatzeko aukera ematen duen etapa moduan, betiere, hiritar aktiboen kontzeptua abiapuntu dela.*

3.2.2. Ataungo Gazteria Politiken egungo egoera

3.2.2.1. Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapen Sistema

Haur, nerabe eta gazteei haien egoera edo prozesuaz disfrutatzeko eta garatzeko bidearen alde egiteko, Udalak etengabeko arreta garatu beharko du, kolektiboa osatzen duten adin tarte desberdinei begira (haurtzaroa, nerabearoa eta gaztaroa). Etengabeko arreta hau, 6 ekintza eremu orokorretan egituratzen da, kolektibo horren premia desberdinekin bat eginez.

Proposatutako sistemaren arabera, udalak ere haur eta gazteria sustapeneko udal unitate bat eduki beharko du, zeregin hauekin:

1. Sistemaren zerbitzuak hornitzea eta koordinatzea udal eremuan, dagozkien zerbitzua eskaintzen edo kudeatzen dituzten entitateekin edo enpresekin lankidetzan.
2. Hurrei, nerabeei eta gazteei (esaterako, oporretako udalekuak) edo entitateei (esaterako, diru-laguntzak) zuzenduriko eta zerbitzuen bidez bideratzen ez diren udal esparruko jarduerak eta ekintzak kudeatzea.
3. Sistemaren organoei laguntza tekniko dinamizatzailea eskaintzea udal eskalan.
4. Sistemaren planifikazio eta ebaluazio prozesuen garapena dinamizatzea eta bermatzea udal mailan
5. Udal eremuan, Hartzailen eta Gipuzkoako Haur eta Gazteriaren Sustapeneko Sistemaren interesatutako edo inplikaturako agente edo instantzien partaidetza aktibatzea eta animatzea.
6. Sistemaren komunikazioa eta barne eta kanpo harremanak kudeatzea udal mailan.
7. Udaleko kudeaketa arloan, Udalak haur eta gazteriaren sustapenerako erabiltzen dituen baliabideak (ekonomikoak, materialak, giza baliabideak, informazioa) eta azpiegiturak kudeatzea.
8. Modu aktiboan parte hartzea ezagutza eta aholkularitza teknikoak kudeatzeko prozesuan eta kalitatea kudeatzeko dinamikan; haur eta gazteriaren sustapenerako foru unitateak koordinatuta eta dinamizatuta.

6 ekintza eremu orokorretan oinarritutako etengabeko arreta hura adin desberdinei zuzenduriko zerbitzu modura gauzatuko litzateke. Ekintza eremu horiek osoko sare koherente bat osatzen dute, eta zerbitzuetan gauzatzen dira.



Hauek dira ekintza eremuak:

- Informazioa.

Informazioaz ari garenean, garaiz, nahiko, eraginkortasunez eta modu antolatuan eta adierazgarrian emandako datuez hitz egiten ari gara; hots, hartzaileentzat interesgarriak diren arloetan baliabide edo prozesu interesgarri eta eskuragarriak eta haien ezaugarriei buruzko datuak egotea. Informazio hori, bereziki, hurrek, nerabeei eta gazteek, beste eremutan edo sistemetan eskura dituzten baliabideak eta aukerak (informazio zehatzagoa barne) eskura jartzeko funtsezko tresna bat da (besteak beste, lana, etxebizitza, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, osasuna, diru-sarreraren bermea, kultura...).

- Orientazioa.

Orientazioaz hitz egiten dugunean, hurrei, nerabeei eta gazteei, aukerak identifikatzeko eta erabakiak hartzeko laguntza (zehatzagoa edo orokorragoa) bat aipatzen ari gara.

- Laguntza.

Laguntzaz ari garenean, hurrek, nerabeei eta gazteek erabakiak hartzeko, jarduerak burutzeko eta loturak eraikitzeko nolabaiteko egonkortasuna eta jarraipena duen laguntzazko eta jarraipenezko harreman bat aipatzen ari gara. Pertsonen arteko konfiantza eraikitzeko prozesua laguntzazko harremanaren berezko ezaugarria da. Aipatutako prozesua, alderdi bakoitzaren zeregin desberdina eta jarrera desberdina alde batera utzi gabe, hartzaileen eta pertsona laguntzaileen artean sortzen da. Laguntzak pertsonen arteko nolabaiteko sendotasun eta iraupeneko harreman interaktiboa, zuzena eta presentziala nahitaezkoa du. Ezinbestez pertsonalizatuta dagoen harreman bat, talde esparru batean eman daitezkeen arren.

- Aisia hezitzailea.

Aisia hezitzaileaz ari garenean, haurren, nerabeen eta gazteen aisialdian burututako esku-hartze mota batez mintzatzen ari gara. Esku-hartze hori olgetarako jarduera atsegingarria izan behar da, bizitzarako gaitasunak, portaerak eta balioak horren bidez beregana edo gara ditzaten. Udaleko berezko azpiegituren barne burutu daitezkeen jarduerak aipatzen ari gara, esaterako: kalean edo naturan. Bai ikasturteko edo lan aldiko arratsaldetan eta asteburuetan, bai opor garaietan. Gaitasun tekniko zehatzetan olgeta edo prestakuntza helburu duten jarduerak izan daitezkeen arren (esaterako, informatikako tailer bat), haien ikuspegia harremanezko gaitasun orokorragoetara zuzentzen da, elkarbizitzako, solidaritateko, gizalegeko, ... balioekin eta portaerekin lotuta.

- Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak.

Adierazpenerako eta partaidetzarako bidez ari garenean, benetako aukerak sortzeari eta dinamizatzeari buruz ari gara, hurrek, nerabeei eta gazteek iritziak adierazi, proposamenak egin, erabakiak hartu, erantzukizunak bere gain



hartu, kudeatu edo batera kudeatu eta horientzat garrantzitsuak diren prozesuetako neurriren bat kontrolatu ahal izateko, bai gazteria sailaren jarduera esparruan, bai hortik kanpo. Hain zuzen, pertsona horiek, modu zuzenean edo zeharka, eragiten dieten egoeretan eragina sortu ahal izatea helburu zuzena duten baliabideez eta jardueraz ari gara.

- Aukerak sortzeko eta ekoizteko laguntzak.

Aukerak sortzeko eta ekoizteko laguntzez ari garenean, aukera errealak sortzeaz eta dinamizatzeari ari gara, haurrek, nerabeek eta gazteek sormenerako eta ekoizpenerako gaitasuna sustatzen eta bideratzen dituzten jarduerak eta proiektuak garatu eta bistaratu ahal izateko.

Lehen esan dugun bezala, 6 ekintza eremu orokorretan sailkatutako etengabeko arreta hori, adin tarte bakoitzari zuzenduriko *zerbitzu* moduan gauzatzen da.

Zerbitzuak eskaintza antolatzen, egituratzen eta irudikatzen den modua dira, eta hartzaileengandik gertu dauden dispositiboak dira, egonkorak edo ez hain egonkorak. Zerbitzu bakoitzak ekintza eremu guztiak edo horietako batzuk barne hartzen ditu.

Hauek dira hurrei, nerabeei eta gazteei zuzenduriko zerbitzuak:

- Haurtzako Balio Anitzeko Zerbitzua: aurretik aipatutako sei erantzun motak (ekintza eremuak) eskaintzen dizkie 12 urte arteko hurrei.
- Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua: aurretik aipatutako sei erantzun motak eskaintzen dizkie hamahiru eta hamazazpi urte bitarteko nerabeei.
- Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua: aurretik aipatutako sei erantzun motak eskaintzen dizkie hamazortzi eta hogeita bederatzi urte bitarteko gazteei.
- Haur eta Gazteentzako Informazio zerbitzua: informazioa eskaintzen duen zerbitzu bat da, halaber, orientazioa eta laguntza ere eskain ditzake.
- Haurren eta Gazteen Ekimenen Aldeko Zerbitzua: aukerak sortzeko eta ekoizteko adierazpen, partaidetza eta laguntzarako bideak eskaini ditzakeen zerbitzu bat da.

Gure ustez, zerbitzu aukera horrekin, hasiera batean, haurrak, nerabeak eta gazteak, egin ditzaketan bizi-ibilbidean, sor daitezkeen etengabeko premiak barneratzeko tresnaz hornitu ditugu. *Jarraipen* ideia horretaz gain (alegia; adin tarte guztietarako zerbitzuak existitu daitezen), zerbitzuen garapenak *koherentzia* bezalako funtsezko irizpidea ere kontuan hartu beharko luke (alegia, udalak, Gazteria Saitetik nahiz beste Saitetatik, burutzen dituen jarduera desberdinak helburu berberak lortzera bideratuta egotea).



Amaitzeko, zerbitzu horiek garatzerakoan, zeharka lantzeko hainbat balio hartu behar ditugu kontuan, besteak beste: gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, elkarbizitza eta euskararen erabilera eta euskal nortasuna eta kultura eraikitzearen esperientziak, desberdintasunaren baloraziotik:

- Eskaintza egiterakoan, genero ikuspegia kontuan izan behar da eta neska eta mutilen egoerak eta beharrak desberdinak direla kontuan hartu.
- Hizkuntza normalkuntza sustatzea, bai euskararen erabilerari dagokionez, bai euskal nortasunaren eta kulturaren errespetuari dagokionez, desberdintasunaren baloraziotik.
- Zailtasunen bat duten neska-mutilei, nerabeei eta gazteei erraztasunak eman behar zaizkie horiei zuzenduriko zerbitzu eta ekipamendu desberdinak erabiltzeko, jarduera konpentsatzaileak sustatuz.

3.2.2.2. Ataungo Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Sistemak planteatzen duen eredia kontuan hartuz Ataungo Gazteria Politiken azterketa bat egingo dugu jarraian.

Ataungo Sustapen arloa sortzeke dagoen esparrua da. Gazteria gaiak lantzeko batzorderik ez dago, Kultura Batzordean lantzen dira, aurrekontu bereizturik ere ez du izan. Hala ere, 2009an zehar Udalak arloa garatzeko beharra ikusi eta horretarako pausuak ematen hasi da, GFArekin lankidetzatza hau adibide.

Lehen adierazi bezala, Ataungo egitura fisikoak eta biztanleria sakabanatua egoteak herrian zerbitzuak garatzeko garaian suposatzen dituen traba eta eztabaidak kontuan izateko elementua dira. Hala ere gurasoen ekimenean oinarritutako jolas gela dago San Gregorion eta ibilbide luzea duten gazte elkarteak daude bi auzo nagusietan. Nahiz eta auzoen arteko harremanak eta udalarekin errazak ez izan, denek bat egiten dute gaur egungo nerabe eta gazteen arteko harremanetan ez daukala hainbesteko eraginik eta arloaren garapenerako lehentasunak identifikatzean ere denak ados agertzen dira, eta hau da abiapuntua.

Aipatutako Jolasgelaren antzeko ekimen bat egiteko saiakera egin zen San Martinen, baina lokalaren egoera eta kokapena eta erabilera urriak saiakera bertan behera utzi zuten.

Aspaldi, herriko apaiza dinamizatzaile zuen mugimendu handiko talde bat egon zen, denek gogoratzen dute garai hau, herrigintza eta elkarlaneko garai oparoak omen ziren.

Ataunek dituen azpiegiturak ez dira asko, gehienak San Martinen daude eta nahiz eta jendeak logikoa ikusten duen biztanle gehien dagoen auzoetan hauek egotea, bere auzoetarako ere eskatzen ditu. Aipagarrienak, eskola, kirol instalakuntzak, antzokia eta San Gregorioko Elkargunea dira. San Gregorioko Jolasgela eta Oargi eta Artadiko lokaletak eta nerabe talde bati musika jotzeko utzitako espazioaz aparte ez dago haur, nerabe eta gazteen sustapenerako zerbitzu eta azpiegitura berezkorik.



Hutsune hauek betetzearren, Udala orain arte eskaera zehatzak erantzuten saiatu da, baina baliabideak mugatuak dira eta Ataun bezalako herri txiki batean lehentasunak beste batzuk izaten dira askotan. Hala ere arloa garatzeko beharra eta planteamendu orokor baten beharraz ohartu eta honetan hasteko borondatea erakutsi du.

Ildo berean, Udala eta herritar gazteen arteko komunikazioari dagokionez. Kontuan izan behar da herrian bizi den banaketa politikoak eragin handia izan duela, eta bien arteko komunikazio bide berezkorik ez dela egon. Hala ere denek adierazten dute elkartu eta elkarlanean hasteko beharra.

Parte hartzearen gaiarekin lotuta Ataun herri oso dinamikoa izan denaren sententzia dago, baina gaur egun guztiz kontrakoa denaren iritzia orokorra da, ez dago herrigintzan ekimen handirik eta bakoitzak bere auzora, elkartera jotzen du, eta bakoitza berean dagoela iritzi izan da orokorrean.

Udalaren partetik Hirigintza arloan aurrera eraman diren zenbait ekimenetan herritarren parte-hartzea sustatzeko saiakerak egin dira, plazak berritzeko ekimenak adibide. Hauetaz gain, 2009an zehar, eta GFArekin lankidetzan KUDEATUZ programaren barruan, Ataungo kirol instalakuntzen inguruko prozesu partehartzailea egin zen, Udalarekin batera herritarrek beren iritzi eta ikuspuntuak azaltzeko lana eta aurrera begirako erronkak eta lehentasunak identifikatuaz.

Informazioari dagokionez ez dago zerbitzu bereizirik. Badago udaleko web orria eta bertako aldizkaria, baina haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzu berezkorik ez dago.

4. LAN PROPOSAMENA

Haur, nerabe eta gazteen joerak bai orokorrean bai Ataungo errealitatean oinarrituta, adin tarte hauen beharrak eta eskaerak, eta Udalak horri aurre egiteko dituen baliabideak aztertu ostean, haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko planteatzen dugun esku-hartze proposamena da jarraian azaltzen duguna. Epe ertain-luzean garatu beharrekoa da, hau da, datorren hiru urteetan zehar. Helburu orokorrak abiapuntu harturik, urtero-urtero kudeaketa plan bat diseinatuko da, epe horretan zehar garatu beharreko ekintzak eta epe zehatzak bertan jasoz.

Ondorio gisa, atzeman den behar nagusia, Haur eta Gazteria Suspertzailearen beharra da egiteko nagusia. Ondoren proposatuko den lanketa guztia modu koordinatu batean gauzatu ahal izateko, Gazteria saila eratu nahi ez bada ere, Sustapen Sistema osoki garatuko duen Suspertzailearen ardurak argi zehaztu behar dira.

Haurren zerbitzuarekiko jaso dugun ondorioa, Ataungo haurrek eskaintza osatuago baten beharra dutela da, nahiz eta ez den garrantzizkoen lehentasun bezala identifikatu San Martin auzoko haurrek eta Aia eta baserrietakoek dira egokitutako eskaintza baten behar handiena dutenak. Gauza bera gertatzen da Udalekuekin, nahiz eta badauden, hauek berbideratu beharra ikusi da. Guraso elkarteak aurtengo erronka nagusia udaleku irekiak antolatzea duela kontuan izan beharreko asmoa da.

Nerabeak dira herrian behar gehien dituztenak, Suspertzailearen kasuan bezala, denak ados agertu dira honekin. Hauen ekimenak sustatzeko eta aurrera eramaten laguntzeko eta egoteko espazio bat ematen dien zerbitzu bat eskatzen da. Beti beren protagonismoa, iritzia eta parte hartzea kontuan izanik.



Gazteei dagokienean, ez da zerbitzu baten beharra jaso. Oargi eta Artadiko lokalek herriko gazte asko ditu erabiltzaile edo bazkide. Kultur eskaintza anitzagoa da eskatzen dena, antzokiak egiten duen eskaintza hauei begira ere egitea, beren iritziak kontuan hartuz. Berezko zerbitzuen beharra baino, dauden elkarteen arteko koordinazioan eta garapenean laguntzea da eskatzen dena, eta nagusiki udalarekin komunikazioa erraztu eta bideratuko duen norbait egotea.

Azkeneko ideia-ildo berean, haur, nerabe eta gazteen behar eta nahiak beraien ahotik entzuteko beharra dago, hau da, adierazpen bideak ezartzea eta behar hauek erantzuteko gazteengandik sortutako ekimenak bultzatzea. Partaidetzaren gaia jorratzeak beraz, garrantzia handia izaten jarraitzen du.

Parte-hartzea bakoitzarekin modu ezberdinean landu beharko den gaia da, haur eta nerabeekin zerbitzuetatik garatzen hasi beharko den gaia da. Zerbitzuak gune aproposak dira parte hartu eta honetarako gaitasunak lantzeko, *parte hartuz ikasten baita parte hartzen*. Haurrei eta nerabeei zuzenduriko zerbitzuetan parte-hartzea eta talde ekimena sustatu beharko dituzte, gazte izaten direnerako parte hartzeko gaitasun batzuk bereganatuak izan ditzaten. Modu ezberdinetan gauzatu ahalko da hori; definitu eta martxan jartzeko garaian, programazioan eta ebaluaketetan iritzia eskatu, antolaketan inplikatu edo eta interes berdinak dituzten norbanakoak elkartzeko saiakera egin elkartegintzarako joera sustatzeko. Izan ere, lehen adierazi bezala zerbitzu ezberdinak elkarren artean lotura dute, *continuum* bat osatzen dute, era beraz zerbitzu hauetatik aurrez lana egoki egiten bada herri mailan parte hartzeko beharrezko gaitasunak garatu eta elkartegintzarako bidea ere erraztuko da. Gazteen kasuan, dauden elkarteekin elkarlana izan beharko luke hauen parte hartzea sustatzeko bide nagusia, beren ekimenak garatzeko laguntza eskainiaz, eta beraien dagozkien esparruetan ahotsa emanez. Hala ere hau pixkanaka egin behar den prozesua da, bakoitzaren ardura eta eskubideak argi utzita, beharrezko gaitasunak landuz... Horretan, aurretik aipatu den zerbitzuetako lanak oinarria eta hasiera suposatzen du.

4.1. Ikuspegia

3 urte barru, Ataungo Udalak, Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen Sustapen Sistemaren parte den heinean, honekin bat etorriko den lan egiteko esparru teoriko definitu bat eta egitura bat izango ditu. Alde batetik, haur, nerabe eta gazteekiko politikak definituta izango ditu. Gainera, beharrezko egitura egokitua izango du (aurrekontu, sailen arteko banaketa eta arduradun teknikoaren funtzioak eta ardurak argi definituak), eta baita gazteria arloan lan egiteko zerbitzu eta komunikazio sare bat ere. Azkenean, lan dinamika propio eta iraunkor bat sortua izango du, Sustapen arloan lan egitera begira.

4.2. Xedea

Udalak, Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen Sustapen Sistemaren parte eta toki administrazio publikoa den heinean, biztanleriaren behar eta premiei erantzun behar die. Hau horrela izanda, haur, nerabe eta gazteen behar eta premiei ere erantzun behar die, eta baita hauekin harreman zuzena duten eragileei ere (gurasoak, elkarteak eta abar). Honetaz gain, beraien heziketa eta emantzipazio prozesuak baldintza berdinetan erraztuko dituen baliabideak izango dituztela bermatu behar du. Gainera, haur, nerabe eta gazteen eskubide zibil, kultural eta gizartekoak ahalbidetuko dituen ekimenak sustatuko ditu, aniztasunaren ikuspuntutik, hauen artean parte-hartzea eta hiritartasun aktiboa. Horretarako bere gazteria politikak definitu beharko ditu



Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen Sustapen Sistemarekin bat etorri, eta baliabide pertsonal, material eta espazialak izan. Hauen arteko harreman eta koordinazio esparruak sortu beharko ditu, beti ere etengabeko hobekuntzarako tresnekin lana eginez.

4.3. Helburu orokorrak eta zehatzak

Esan bezala, hurrengo 3 urteei begira **helburu orokor eta zehatzak** definitzen dira ondoren. Urteko kudeaketa plana 3 urteko helburu zehatzetan oinarrituko da, hauek izango direlarik urte bakoitzeko planean lortu beharreko helburuak.

Helburu orokorra: Udal Gazteria gaietan gazteria politiken marko baten barruan lan egingo dela bermatu.

Helburu zehatzak:

Ataungo Udala Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemara atxikitu.

Udalak haur, nerabe eta gazteei zuzenduko zaien eskaintza garatuko duen arloa definitu eta egituratu bat izatea ahalbidetu.

Helburu orokorra: Haurrekin, nerabeekin eta gazteekin harremana duten gaietan norabide eta irizpide komun batzuekin lan egitea sustatu, koordinazioa eta elkarlana landuz.

Helburu zehatzak:

Udal mailan Sustapen gaiarekin erlazioa duten udal langileen arteko komunikazio eta elkarlanerako bideak sortu.

Herri mailako gazteria eragile eta udal mailan Sustapen gaiekin lotura duten langileen arteko komunikazio, koordinazio eta elkarlanerako bideak sortu.

Helburu orokorra: Udalak Haurrei, Nerabeei eta Gazteei zuzentzen dizkien zerbitzuak definituriko marko ideologikoaren barruan definitu.

Helburu zehatzak:

Sortzen diren zerbitzu berriak Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sistemak definitzen dituen arabera definitu.

Helburu orokorra: Haurren, nerabeen eta gazteen parte hartze eta hiritartasun aktiboa bermatzeko ekimenak sustatu.

Helburu zehatzak:

Haurrei, nerabeei eta gazteei zuzenduriko zerbitzuetan hauen parte-hartzea sustatu.

Herriko haurren, nerabeen eta gazteen beharrak, proposamenak eta iritziak ezagutu eta hauen inplikazioa bilatzeko komunikazio espazioak sortu.



Helburu orokorra: Haur, nerabe eta gazte guztien nortasunaren garapenerako, elkarbizitzarako ikaskuntza eta gizartean parte hartzeko aukera berdintasuna bermatu.

Helburu zehatzak:

Sustapen Sistemako eskaintza osoan, zehar lerro moduan nortasunaren garapena eta elkarbizitzarako aukera berdintasuna sustatu, aniztasunaren ikuspuntu positibo batean oinarritua.

Helburu orokorra: Sustapen Sistemaren garapenean etengabeko hobekuntzarako sistema eta tresnak ezarri.

Helburu zehatzak:

Gipuzkoako lurralde historikoko gazteria teknikariekin ezagutzaren transmisio eta elkartrukean parte hartu.

Udal mailan Gipuzkoako lurralde historikoko gazteria arloaren ezagutzaren transmisioa bermatu.

Haur, nerabe eta gazteria arloan kudeaketa aurreratua sustatu; planifikazioa, difusioa eta ebaluazioa

4.4. 2009-10 kudeaketa plana

Diagnostikotik ateratako ondorioen ildotik, hasteko, lehentasunezkoa da sustapen arloari dagokionez esparruaren ardura hartuko duen Suspertzaile bat egotea, arloa ongi definitu eta egonkortzeko, eta bere egitekoak argi egon daitezen postu monografía bat landuz bere ardurak eta funtzioak jasoko direlarik.

Era berean, herri mailan ezagutzera eman beharko da esku hartze proposamena eta marko teorikoa bera, garrantzitsua iruditzen baitzaigu, hasieratik herritarren inplikazioa bilatzea ahal den heinean. Bide batez diagnostikoan parte hartu dutenei ere egindako lana aurkezteko aprobeztatu daiteke.

Haurrentzako udako eskaintzaren azterketa eta egokitzea da proposatzen den hurrengo urratsa. Hau nerabeen lehentasunaren behararekin kontrajarria iruditu daitekeen arren, urteko garaia kontuan izanda proposatzen den ildo da. Aurten egingo den eskaintza eta guraso elkarteak gaia lantzea aurreikusia duenez hasieratik elkarlanean aritzeko asmoarekin. Nerabeekin egin beharreko lana jarraian azaltzen delarik.

Udalekuen berrazterketa bat egitea proposatzen da, gaur egun egiten den eskaintza eta egun Sustapen arloko sistemak planteatzen duena kontuan izanik. Udalaren hausnarketa honen ostean, balorazio horretan oinarriturik, aldaketarako proposamenak aztertuko dira. Hausnarketa egin ondoren, haurren iritzia eta beharrak zuzenean jasotzeko aukera aztertuko da, beraiei eskainitako zerbitzua euren parte-hartzearekin eraldatua izan dadin.

Ildo beretik Gazteleku zerbitzu baten definizio eta martxan jartzea proposatzen da. Egundauden aukerak aztertu eta Sistemak planteatzen duen eredia kontuan izanik. Hausnarketa honen ostean, nerabeen beharrak eta interesak zuzenean jasoko dira eta beraiekin zerbitzua definitu eta sortzeko prozesu bat abian jarriko da. Definizio prozesu



honi hasiera emateko Suspertzailea izango den pertsona nerabeekin harremanak hasi ditzake, ondoren garatu beharko diren ekintzei bidea irekitzeko.

Haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatzeari begira bi ildo nagusi proposatzen dira. Batetik zerbitzuetan parte hartzea sustatzea, horretarako berraztertze edota definizio momentuetan gai honi arreta berezia eskainiz. Bigarrenik, herri mailan dauden gazte elkarteekin komunikazioa eta elkarlanerako bideak zehazteko beren beharrak ezagutu eta momentu honetan elkarlanerako aukerak adostea proposatzen da, dauden ekimenetan hauen presentziaren beharraren inguruan lanketa bat ere eginaz.

Ezin ahaztu, guzti hau ondo bideratzeko ere beharrezkoa dela kudeaketa gaitasun batzuk lantzen joatea Suspertzailearekin batera. Beraz, figura honen formazioaz gain, ildo ezberdinen planifikazioa, ebaluaketa eta difusioa ere nola egin lantzen joango gara modu jarrai batean.

Dena den jarraian epe honetarako proposatzen diren helburu eta ekintzak azaltzen ditugu banan bana:

1. Sortzen diren zerbitzu berriak Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sistemak definitzen dituen arabera definitu.

1.1. Helburu zehatza: Haurrentzako udaleku zerbitzua aztertu eta egokitu

- 1.1.1. Suspertzailearekin formazio lana burutu
- 1.1.2. Berrazterketaren planifikazioa landu
- 1.1.3. Orain arteko Udalekuen zerbitzuaren proiektua aztertu eta guraso elkartearen proiektua ezagutu.
- 1.1.4. Udaleku zerbitzuaren proiektua idatzi
- 1.1.5. Udalekuak planifikatu eta martxan jarri

1.2. Helburu zehatza: Nerabeen zerbitzua definitu eta martxan jarri

- 1.2.1. Suspertzailearekin formazio lana burutu
- 1.2.2. Nerabeei Suspertzailearen figura azaldu eta beraiekin harreman eta komunikazio bideak lantzen hasi
- 1.2.3. Nerabeekin beraien beharren inguruko informazioa jaso
- 1.2.4. Gazteleku zerbitzuaren proiektu orokorra egin eta nerabeekin egingo den prozesu parte hartzailea diseinatu
- 1.2.5. Udalean zerbitzuaren proiektua eta prozesua aurkeztu eta onartu.
- 1.2.6. Diseinaturiko prozesua martxan jarri

2. Herriko haurren, nerabeen eta gazteen beharrak, proposamenak eta iritziak ezagutu eta hauen inplikazioa bilatzeko komunikazio espazioak sortu

2.1. Helburu zehatza: Ataungo udalekuetan haurren parte-hartzea sustatzeko bideak definitu eta martxan jarri.

- 2.1.1. Suspertzailea eta begiraleekin formazio lana burutu.
- 2.1.2. Zerbitzuaren azterketa burutzen denean arreta berezia jarri orain arteko esperientzien berri jasotzeko eta zerbitzuetan parte-hartzea sustatzeko burutzen diren ekintzak aztertu
- 2.1.3. Parte hartzea sustatzeko abian jarriko diren ekimenak diseinatu
- 2.1.4. Diseinatutakoa martxan jarri.



2.2. Helburu zehatza: Ataungo Gaztelekuaren definizioan nerabeen parte-hartzea sustatzeko bideak definitu eta martxan jarri.

- 2.1.1. Suspertzailearekin formazio lana burutu.
- 2.1.2. Zerbitzuaren definizioa burutzen denean arreta berezia jarri orain arteko esperientzien berri jasotzeko eta zerbitzuetan parte-hartzea sustatzeko burutzen diren ekintzak aztertu
- 2.1.3. Parte hartzea sustatzeko abian jarriko diren ekimenak diseinatu
- 2.1.4. Diseinatutakoa martxan jarri.

2.3. Helburu zehatza: Herriko gazte elkarteekin (Oargi eta Artadi) komunikazioa eta elkarlanerako bideak zehaztu

- 2.3.1. Oargi eta Artadiko arduradunarekin bildu beren beharrak eta asmoak ezagutu
- 2.3.1. Ekimen hauetan elkarlanerako aukerak aztertu eta adostu
- 2.3.3. Udalean eta herrian dauden koordinazio esparruetan beren parte hartzea egoteko aukerak aztertu

3. Udalaren Gazteria gaitan gazteria politiken marko baten barruan lana egitea bermatu.

3.1. Helburu zehatza: Udal mailan eta herri mailan marko ideologikoa konpartitu.

Ekintzak:

- 3.1.1. Eskuartze proposamenaren aurkezpena diseinatu
- 3.1.2. Aurkezpena burutu

4. Udalak haur, nerabe eta gazteei zuzenduko zaien eskaintza garatuko duen arloa definitu eta egituratu bat izatea ahalbidetu.

4.1 Helburu zehatza: Udal mailan eta herri mailan arloaren garapena ahalbidetuko duen erreferentziazko figura bat egotea

- 4.1.1. Arloaren ardura izango duen suspertzailea kontratazeko prozesuan abian jarri eta kontratazioa burutu
- 4.1.2. Suspertzailearen ardurak eta funtzioak jaso
- 4.1.3. Suspertzailearen ardura eta funtzioak udal mailan onartu
- 4.1.4. Suspertzailearen formakuntza planifikatu eta burutu

5. Hurrekin, nerabeekin eta gazteekin harremana duten gaitan norabide eta irizpide komun batzuekin lan egitea sustatu, koordinazioa eta elkarlana landuz.

5.1. Helburu zehatza: Herri mailako gazteria eragile eta udal mailan Sustapen gaiekin lotura duten langilearen arteko komunikazio, koordinazio eta elkarlanerako bideak sortu.

- 5.1.1. Zerbitzu ezberdinako eragileekin lan koordinatua egitera iristeko bideak definitzeko planifikazioa burutu

6. Aukera berdintasuna, elkarbizitza eta euskal kultura eta nortasuna bereganatzea sustatu, ezberdintasunaren baloraziotik abiatuta.



6.1. Helburu zehatza: Zerbitzuetako ekintzetatik gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu.

6.1.1. Ekintza oro planifikatzen denean genero berdintasuna nola landuko den zehaztu.

6.2. Helburu zehatza: Euskararen erabilera eta euskal nortasun eta kultura eraikitzeke esperientziak sustatzea.

6.2.1. Hizkuntza normalizaziora zuzenduriko ekintzak definitu eskaintza orotan.

6.3. Helburu zehatza: Zerbitzuetan jatorri eta egoera ezberdinak dituzten haur, nerabe eta gazteen irisgarritasuna bermatu.

6.3.1. Jatorri eta egoera ezberdinak dituzten haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak kontuan izan gazteria gaietan garatzen diren ekintzetan.

7. Gipuzkoako lurralde historikoko teknikariek ezagutzaren transmisioa eta elkartrukean parte hartu.

7.1 Helburu zehatza: Gipuzkoako lurralde historikoan ezagutzaren transmisio eta elkartrukeko dauden bideak ezagutu eta bertan parte hartu

7.1.1. Gipuzkoako lurralde historikoko gazteria teknikarien sarean parte hartu.

7.1.2. Gaztesare aplikazio informatikoa ezagutu eta elikatu.

7.2. Helburu zehatza: Sustapen Sisteman kudeaketa aurreratua sustatu: planifikazioa, difusioa eta ebaluazioa.

7.2.1. Planifikazio tresnak eskaini eta hauen erabilera sustatu.

7.3. Helburu zehatza: Haurren, nerabeen eta gazteen artean gazteria arloaren ezagutza handitzeko komunikazioa landu.

7.3.1. Haurrentzat, nerabeentzat eta gazteentzat egiten den eskaintzaren difusioa eta komunikazio ekintzak egin.

7.4. Helburu zehatza: Martxan dauden zerbitzuen gaineko etengabeko hobekuntzan lana egin.

7.4.1. Sustapen sistematik egindako eskaintza eta ekintzen ebaluazioa egin



ATAUN		2010erako LAN PROPOSAMENA																																																												
		urtarrila				otsaila				martxoa				apirila				maiatza				ekaina				uztaila				iraila				urria				azaroa				abendua																				
		1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4													
1.1. Haurrentzako udaleku zerbitzua aztertu eta egokitu																																																														
1.1.1.	Suspertzailearekin formazio lana burutu																																																													
1.1.2.	Berrazterketaren planifikazioa landu																																																													
1.1.3.	Orain arteko Udalekuen zerbitzuaren proiektua aztertu eta guraso elkartearen proiektua ezagutu.																																																													
1.1.4.	Udaleku zerbitzuaren proiektua idatzi																																																													
1.1.5.	Udalekuak planifikatu eta martxan jarri																																																													
1.2. Nerabeen zerbitzua definitu eta martxan jarri																																																														
1.2.1.	Suspertzailearekin formazio lana burutu																																																													
1.2.2.	Nerabeei Suspertzailearen figura azaldu eta beraiekin harreman eta komunikazio bideak lantzen hasi																																																													
1.2.3.	Nerabeekin beraien beharren inguruko informazioa jaso																																																													
1.2.4.	Gazteleku zerbitzuaren proiektu orokorra egin eta nerabeekin egingo den prozesu parte hartzailea diseinatu																																																													
1.2.5.	Udlean zerbitzuaren proiektua eta prozesua aurkeztu eta onartu																																																													
1.2.6.	Diseinaturiko prozesua martxan jarri																																																													
2.1. Ataungo udalekuetan haurren parte-hartzea sustatzeko bideak definitu eta martxan jarri.																																																														
2.1.1.	Suspertzailearekin formazio lana burutu																																																													
2.1.2.	Zerbitzuaren azterketa burutzen denean arreta berezia jarri orain arteko esperientzien berri jasotzeko eta zerbitzuetan parte-hartzea sustatzeko burutzen diren ekintzak aztertu																																																													
2.1.3.	Parte hartzea sustatzeko abian jarriko diren ekimenak diseinatu																																																													
2.1.4.	Diseinatutakoa martxan jarri.																																																													
2.2. Ataungo Gaztelekuaren definizioan nerabeen parte-hartzea sustatzeko bideak definitu eta martxan jarri.																																																														
2.2.1.	Suspertzailearekin formazio lana burutu																																																													
2.2.2.	Zerbitzuaren azterketa burutzen denean arreta berezia jarri orain arteko esperientzien berri jasotzeko eta zerbitzuetan parte-hartzea sustatzeko burutzen diren ekintzak aztertu																																																													
2.2.3.	Parte hartzea sustatzeko abian jarriko diren ekimenak diseinatu																																																													
2.2.4.	Diseinatutakoa martxan jarri.																																																													
2.3. Herriko gazte elkarteeekin (Oargi eta Artadi) komunikazioa eta elkarlanerako bideak zehaztu																																																														
2.3.1.	Oargi eta Artadiko arduradunarekin bildu eta beraien beharrak eta asmoak																																																													
2.3.2.	Ekimen hauetan elkarlanerako aukerak aztertu eta adostu																																																													
2.3.3.	Udlean eta herrian dauden koordinazio esparruetan beren parte hartzea egoteko aukerak aztertu																																																													
3.1 Udal mailan eta herri mailan marko ideologikoa konpartitu																																																														
3.1.1.	Eskuartze proposamenaren aurkezpena diseinatu																																																													
3.1.2.	Aurkezpena burutu																																																													
4.1. Udal mailan eta herri mailan arloaren garapena ahalbidetuko duen erreferentziarako figura bat egotea																																																														
4.1.1.	Arloaren ardura izango duen suspertzailea kontratatze prozesuan abian jarri eta kontratazioa burutu																																																													
4.1.2.	Suspertzailearen ardurak eta funtzioak jaso																																																													
4.1.3.	Suspertzailearen ardura eta funtzioak udal mailan onartu																																																													
4.1.4.	Suspertzailearen formakuntza planifikatu eta burutu																																																													

